

VILLA BIDERTZ
D MAILA

ALDAPETA 74



Frantzisko Urkola, 1923

Deskribapena

Ilaran antolatutako etxebizitza-multzo interesgarria, eraikinean eta lorategian mehelinak partekatzen dituen tipologiari jarraituz altxatua. Urkolak mota honetako beste bi lan egin zituen hurbileko La Fe pasealekuan, alde nagusi bakarra dutela fatxada-lerro jarraitua antolatzea, bai espaloian bertan bai lorategi bitartez atzeraemanda. Etxebizitzak mailaz maila egokitzen zaizkio maldari; horretarako, murrua mentsula gainean aurreratzen da, hain zuzen ere lehen solairuko hegala egiten duen moduan. Eraikitzeko modu hori murruz bereizitako kaleko baserrietatik iritsi zen estilo neoeuskaldunera. Etxe hau aurrekoaren antzera dago planteatuta lehen solairuari eta zurezko teilatu-hegalari dagokienez. Lehen solairu hegaldunxea izaten segitzen du, murru irtenen artean errematatua, inposta batetik abiatzen baita soliba-buruzko egitura batetik beharrean, jabaloi txikiak dauzkan teilatu-hegala ere badaukala. Oraingoan, beheko solairuak hiru bao dauzka, 72 zenbakian bezala. Aldaketa txiki bat da multzoaren tonuaren barnean; bereizgarri ditu, halaber, fatxadako estalgarrietan erakusten dituen tonu gorriak.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxadako eta murruetako apaindura-erliebeak eta teilatu-hegaleko zuburuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.